

Inmaculada Álvarez Morillas, Organización de Mujeres Empresarias y
Gerencia Activa (OMEGA), Madril

“Emakume izena duten jardunbide egokiak Estatuan”

2008ko irailaren 2a

“BEHARREZKOA DA ENPRESEN ADMINISTRAZIO- KONTSEILUETAN EMAKUMEEN PRESENTZIA AREAGOTUKO DUTEN PLANAK MARTXAN JARTZEA”

Inmaculada Álvarez Morillasek ibilbide profesional zabala du emakume ekintzailea laguntzeko hainbat praktika instituzioetan martxan jartzen. Hizlariak adierazi zuenez, 1975etik, Espainian Emakumearen Legea onartu zenetik, alor horretako mugarrak hainbat izan dira.

Hizlariaren ustetan, ordura arte urratuak zeuden emakumearen oinarrizko hainbat eskubide (“banku-kontu bat irekitzea, adibidez”) aitortu zituen Emakumearen Legea martxan jarri ondoren, Berdintasunerako Planak direlakoak iritsi ziren, eta handik gutxira, Emakumearen Institutuko Artezkaritza Kontseilua sortu zen. Instituzio hori martxan jartzea oso garrantzitsua izan zen, Álvarez Morillasen ustetan, emakumearen enpresa-jarduera babesteko lehen lege sendoak onartzen lagundu baitzuen.

OMEGAk arduradunak, “emakume ekintzailea laguntzeko instituzioek martxan jartzen dituzten neurri guztien ondorioak behar bezala aztertzea” beti oso garrantzitsua dela azpimarratu zuen, eta bide horretan beste mugari garrantzitsu bat gizonen eta emakumeen arteko aukera-berdintasuna sustatzen duen “Plan Óptima” delakoa izan zela.

“Beste batentzat lan egiten denean, lana gusta dakizuke ala ez; baina zuretzat lanean diharduzunean, lana derrigor gustatu behar zaizu”

Inmaculada Álvarezek aitortu zuenez, emakumeen presentzia handia antzematen da giza baliabideekin lotutako zuzendaritza-karguetan, baina, hala ere, oraindik oso emakume gutxi direla sail teknikoetan daudenak. Edonola ere, hizlariaren hitzetan, emakume ekintzaileak, zehazki, eta ekintzaile guztiak, orokorrean, ulertu behar dutena zera da: “beste batentzat lan egiten denean, lana gusta dakizuke ala ez; baina zuretzat lanean diharduzunean, lana derrigor gustatu behar zaizu”.

Emakume ekintzailea laguntzeko instituzioek izan dituzten jardunbide egokietan barna egindako ibilbidean, hizlariak adierazi zuenez, arlo horretan izan ziren lehen komunitate-ekimenak emakumeen zuzendaritza-gaitasunak bultzatzera (“Now”

Programa) eta hezkuntza-alarretan hizkuntza ez sexista sustatzera, edota adiskidetzeta eta ordutegi malgutasuna bultzatzera (“Equal” Programa) bideratu ziren.

Inmaculada Álvarezek, emakumea enpresetan, oraindik bigarren lerroan dagoela eta lehen mailara salto egitea falta zaiola adierazi zuen. “Kontuan hartu behar da gizonak baino emakume gehiago irteten ari direla unibertsitatetik, eta horiek direla etorkizun hurbilean ardura gehien izango dutenak”. Zentzu horretan, hizlariaren ustetan, premiazkoa da korporazio handietako administrazio-kontseiluetan emakumeen presentzia sustatzeko planak martxan jartzea.